

...eta

kitto!

949 zkia.
2015-XI-6



Txistua ganbara kontzertuko protagonista

R.P.S. Nº 149/10 LLG.



2015eko bildumak
marka guztietan

ZURE BIGARREN LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI VARILUX®

ERABATEKO BABESA

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

w w w . h a m a i k a . e u s

GURE BEGIZ
IKUSTEKO

DEBABARRENA
Sintonizatu
34. kanalean

Hamaika
telebista

Zure enpresa erakusteko
leku aparta

GIDA

KOMERTZIALA 2016

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko
komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe,
osasun-zentro... guztietan banatzen da.



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus



GIDA 2016
IDA 2016
GIDA 2016
II
G
III
2016
2016
2016
2016
GIDA 2016

ASTEAN ESANAK

"Gero eta zahar gehiago daude eta gero eta jende gutxiago haiek zaintzeko; horretan asko lagundu dezakete robotek. Baina ez dute zertan hankekin izan, zailagoak izateaz gain ez direlako praktikoak"

(COLIN ANGLE,
ROBOTIKAN ADITUA)

"Ia 38.000 behiburu galdu ditu Hego Euskal Herriak azken hamar urteetan; gaur egun 255.000 behi daude euskal ustiapenetan. Ardi azienda ere %29 jaitsi da hamar urtean; 790.000 ardi inguru daude. Kopuru horiek baserrien gainbehera islatzen dute"

(XABIER MARTIN,
KAZETARIA)

"Internetekin gero eta azkarrago egiten da dena: giza genomaren proiektua, esaterako, 20 urterako zena, bost urte lehenago amaitu zen. Internetek birrindu eta aldatu egiten du sartzen den industria bakoitza; musikarekin edo liburuarekin egin zuena orain telebistarekin egingo du"

(ANDREU VEA,
INGENIARI ELEKTRONIKOA)

"Posta zerbitzuak garai berrietara egokitzen ari dira, gero eta eskutitz gutxiago bidaltzen direlako. Gainera, internet bidezko erosketek irauli egin dute banaketa sistema, postarien geroa kolokan jartzeraino. Azken zazpi urteetan, bidalketak %40 jaitsi dira, eta horrek nabarmen gutxitu ditu Correosen diru sarrerak"

(ANDER GARTZIA-BADIOLA,
KAZETARIA)

"Garraio eta, oro har, toki publikoetan gizonen jarrera fisikoak, hanken zabalerak esaterako, espazio gehiago okupatzera daramala jakin eta nire inguruan hala dela baieztatu ondoren, niretzat egiaztatutako gaitzagoko zerbaiten berri izan dut: gizonen puzker indartsuagoak botatzen dituzte emakumearen gaineko nagusitasuna adierazte aldera"

(ANGEL ERRO,
ZUTABEGILEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KORDA.- Mordoa, txorta. Normalean mahatsarekin erabiltzen da, baina baita berakatzarekin eta txorizurekin ere. "Mahats-kordia, biren artian, makilla baten ekarri eben hango lurretatik".

KORKOBA.- Konkorra. "Gerriak danok erantzi giñuzen; eder asko ederraguak agertu ziran, baiña zenbati ezkutuan genduzen korkobak agertu!".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA



ARGITARAZTZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /
publizitatea@etakitto.eus **Elkartean E-MAILak:** elkarte@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Leire Iturbe
BANAKETA-ARDUADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik)



**EIBARKO
UDALA**



Gipuzkoa
BERRIA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA**

Bizilagunak-ekin bat egitteko deia

Eguaztenian aurkeztu eben SOS Arrazakeriaren Bizilagunak izeneko ekimena Portalean. Alkarte horretako ordezkariak eta udaleko gizartekintzan parte hartzen dabena ziñegotzi guztiak, "udalak instituziño moduan bere osotasunian ekimenarekin bat egitten dabela" argi laga eben. Laugarren urtez jarraixan, ekimenak atzerritik etorritakak eta hamen jaixotakak egun batez mahaixa eta otordua partekatzerara animatzia nahi dau, holan hartu-emonak erraztu eta alkar ulertzia hobetzeko. Horretarako eguna azaruaren 22xa izango da eta parte hartzerara animatzen diranak arduradunekin kontaktuan ipintzeko hainbat aukera dagoz: sosracismobizilagunak@gmail.com helbidera



idatzi edo 943321811 telefonora deittu leike edo, bestela, Jone Morras Eibarko udaleko inmigraziño teknikarixaren bittartez be emon leike izena, immigrazioa@eibar.eus helbidian edo 943708440 telefonuan (ahal dala hillaren 12rako). Ekimenari buruzko informaziño guztia www.mugak.eu helbidian eskuratu leike

Eibar "Etxegabetzerik Gabeko Udalerrri" deklarau dabe

Urxaren 26xan egindako plenuan Stop Desahucios Debabarrenaren adierazpen instituzionala onartu eben PSE-EEK, EH Bilduk eta Irabazik. EAJ abstenidu egin zan eta beste alternatiba bat aurkeztu eban, baiña sozialistak alternatiba horren kontrako botua emon eben. Edozelan be, moziñuaren lehelengo puntuak jasozten dabena onartziarekin batera, Eibar "Etxegabetzerik Gabeko Udalerrri" billakatu zan eta udalak, bestiak beste, etxekaleratziak geldiarazi eta saihesteko dittuan baliabide guztiak erabilteko konpromisua hartu eban.



Urriko zozketako irabazliak

Dendarixen alkartiaren urriko zozketan, 250 euroko erosketa txartela irabazi dabe M^a Angeles Barrenetxeak (Capi), Eguzkiñe Azkarragak (Edurne ilea-paindegia), Olatz Uzquidunek (No Comment), Nerea Arakistainek (Tribeka), Encarna Sampayok (Gubyneskak) eta Irene Garciak (Beittu), zorionak! Bestalde, Dendarixen Elkartearen egoitza tokiz aldatu dabe eta aurrerantzian helbide honetan egongo dira: Urtzaile 1, ext 12. lokala (Aurrera eraikiña). Telefono, e-mail, fax eta bestelakak ez dittue aldatu.



Pintxo lehiaketa bixar Untzagan

Loadinn-ek antolatuta, bixar 12:00etatik 15:00etara Ekipintxo Pintxo Lehiaketa egingo da Untzagan. Arkupe, Txoko, Koskor, Kultu, Astelena gastroneta, Sutondo, Valle, Hirurok, Maixa, Gurbil, Birjiñape eta Kontent tabernak hartuko dabe parte eta jendiak pinxtua eta edarixa bi euro pagauta hartzeko aukeria eukiko dau. Gaiñera, ekitaldixa zuzeneko musikarekin girotuko dabe.



Idoia Labadok "Eskaparatismo eta Visual Desing" ikasi zeban Bartzelonan eta Eibarko dendarixeri opari-paketiak egitteko pautak erakutsiko detse.

"Etxean dittugun gauzekin opari-pakete politak egin leikez"

Datorren azaruaren 16xan opari-paketiak egitten ikasteko aukeria izango dabe Eibarko dendarixak ...eta kitto!ko lokaletan izango dan ikastaruan. Saiua 14:30tik 16:00etara emango dau Idoia Labadok eta parte hartu nahi dabena 943 20 09 18 telefonora deittu leike. "Ikastarua praktikua izango da. Danok dakigu paketiak egitten, baiña etxian daukaguzen gauzekin eta gusto apurtxo batekin oso gauza politak egin geinke. Ez da biharrezkoa diru asko gastatzia; egunkarixak, fieltra, zintak, sokia, kraft papela, izarak, trapuak, kalia hartutako ostuak... erabilli leikez. Denda bakotzak, oparixa norendako dan kontutan hartuta, hainbat pakete mota presta leike". Egia da dendarixak denpora-falta izaten dabela baiña, Idoiak esan deskun moduan, "ondo pentsatu eta gauzak aurretik prestatzen badittugu emaitza oso onak lortuko dittugu. Sarritan ez jakue pakete eta poltseri garrantzi haundixa emoten, baiña jendia uste doguna baiño gehixago fijatzen da, eta dendarixendako bezeruak erakartzeko modua da. Horrelako gauzak bestiengandik bereizteko eta euren lokala promozionatzeko balio dabe".

Udalaren auzorik auzoko billerak

Aste honetan ekin detse udalaren auzorik auzoko billereri, martitzenian Amañan eta atzo Ipuruan egindakuekin. Aurreko urtietan egindakuaeren bi-detik, zazpi billera egingo ditue eta danak 19:00etan hasi-ko dira. Datorren asteko mar-titzenian (hillaren 10ian) Urki-kuekin bilduko dira. Azaruaren 17xan (martitzena) Legarre eta ingurukuen (Arratebide, Mekola, Abontzabide eta Milaflo-res) txandia izango da (San Andres zaharren egoitzan). Azaruaren 19xan (eguen) Beheko Tokia jubilaue etxian Urkizu inguruan bizi di-ranekin egingo dabe billeria. Jardifieta, Estazi-ño eta Matxarixa inguruak, barriz, azaruaren 24an alkartuko dira Coliseoan. Eta azken bille-



ria azaruaren 26xan (eguen) egingo da, Untza-gako jubilaue etxian, herriko erdialdian bizi di-ranekin. Billera irekixak dira eta alkatia, ingu-ru horretako auzozaiña, udaltzainburua eta Zer-bitzu, Obra eta Hirigintza arluetako ziñegotzixa eta teknikuak juaten dira. Aurten lehenengoz Ertzaintzako hurbiltzaille bat (auzozaiñen pa-rekua) be juaten hasi da.

Eibarko Errefuxiatuen Kontseillua

Europako hainbat herrialdetan errefuxiatuak bizi dabenarekin kezkatuta, eibartar talde batek Eibarko Errefuxiatuen aldeko Kontseillua (CARE) eratu eban iraila eta urrixa bittartian. Parte-hartzai-lle guztiak boluntariuak dira eta, azaldu deskuenez, momentuz taldia osatzen eta ideia desberdi-



ñak jasotzen ari dira. Horreta-rako barixakuero Portalean ba-tzen dira, 19:30xetan, eta eu-rekin bat egin eta ideia bari-rak sortzeko gogua daken bo-luntariuak bihar dittuela emon dabe aditzera eta, ho-rregaittik, gaixarekin interesa dakeneri asteroko billeretara juateko dei egin nahi detse.

autuan

BILDUKUAK BARRENARA

Datozen astiotan auzuetako bisitekin segiduko dabe Bilduko ordezkariak eta hurrengo bisitita azaruaren 12xan (eguen) egingo dabela azaldu dabe: "Barrena-Azitaingurura juango gara, 11:00etan eta, betiko moduan, inguruko bizilagunen batek bisita alkarrekin egittia nahi badau, gurekin kontaktuan ipiñi leike bildu@eibar.eus / ilamarain@eibar.eus / gerrasti@eibar.eus helbidietara idatzita edo 943708428 telefonora deittuta.



1960-KUEN LOTERIXIA

Oin dala gitxi ospatu eben euren jaixa 1960xan jaixotakuak eta, azkenian dirua sobrau jakuenez, Gabonetako loterixia erosi dabela emon nahi detse aditzera egunian batutako guztieri: 91895 zenbakiko bost dezimo eta 23797 lau hartu dittue.



JOSE LUIS URBIETA MACHIÑENA

2015-X-27

"Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"

ETXekoak

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Jose Martin Agirre Aranguren

Urriaren 2an hil zen, 90 urterekin

Segi laguntzen zauden tokitik, orain arte egin duzun bezala. EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO.

emaztea, seme-alabak eta bilobak



asteko 795 datua

lagun eguzen Lanbiden izena emonda oktubrian zuzenian industria arluari lotutakuak; bestela, Zerbitzu arloko langabetuak 2.129 ziran. Aurreko hilliarekin konparauta 49 langabetu gitxiago eguzen, 3.813 danera.



Enrike Zuazua Europako Akademixara

Eibarko matematikua Europako Akademiako kide izendatu bari dabe. Hori Akademixori 1988xan sortu eben eta gaur egunian 3.000 kide inguru ditte. Zientzia arluan dihardue danak eta helburutzat "ikasketia, heziketia eta ikerketia sustatzia" dake. Hortik abiatuta, "gizartiaren mesederako bikaintasunaren alde" egitteko konpromisua dake. Zuazuak aurretik be beste errekonozimendu asko jaso ditte: Zientzia eta Teknologiako Euskadi Sarixa (2006xan), "Matematikak eta Informaziño eta Komunikaziño Teknologixak" arloko Julio Rey Pastor Sari Nazionala (2007xan), Humboldt Research Award Sarixa (2013an), Toulouseko CIMI Bikaintasunaren Katedra (2014an) eta aurten Lorraineko Unibersidadiak emon detsan Honoris Kausa Doktora-dutza, bestiak beste.

Barianteko seguridadia hobetzen

Diputaziñuak, udalak behin baiño gehixagotan eskatutakuari kasu egin detsa eta Eibarko saihebidian seguridadia hobetzeko biharrak hasi ditte. Aurreko hillian hasi zittuen biharrak eta abendura bittartian hainbat konponketa egingo dittuela azaldu dabe. Bestiak beste, lurreko seiñalizaziñua margotu eta seiñale bertikalak ipiñiko dittue eta, horrekin batera, zoruari tratamendu berezixa emongo detse.erroberak errepidia hobeto oratu eta labaintzea saihesteko.



Posta bidezko botua

Alderdi politikuak abenduaren 20xan egingo diran hauteskundietan posta bidez botua emon nahi dabeneri laguntzeko zerbitzua eskintzen hasi dira. PSE-EE alderdixak tramitiak egitten lagunduko dau, Untzagako bere egoitzan ("Casa del Pueblon"), astelehenetik barixakura 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Eta zalantzak argitzeko 943207168 edo 943208508 telefonuetara deittu edo eibar@socialistaseibarreses.com helbidera idatzi leike. EAJ-k be gauza bera egingo dau Batzokixan, astelehenetik barixakura 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Telefonua, barriz, 943120616 da. Eta Eibarko EHBilduk posta bidezko bozkaren



inguruko zalantzak argittu eta informaziñua emoteko 626548327 telefonora deittu leikiala emon dau aditzera. Kasu guztietan korreoz botua emoteko eskaeriak abenduaren 10era arte onartuko dittue.



50 urtekuen jai arrakastatsua

Aurreko zapatuan 1965ian jaixotako ixa 200 lagun alkartu ziran euren jaixa ospatzeko. Eguraldi zoragarrixa lagun, Untzagan batu eta Txaltxa Zelaixan taldiaren erretratua etarata ekin zetsen egunari. Bazkarixa aspaldixan ikusi bariko lagunekin atzera be alkartzeko primerako aitzakixa izan zan askorendako.

Pagatxakuak Nafarroan

Urxixa hasieran Pagatxa alkarteko 80 andrak Nafarrora exkursiñua egin eben, bestiak beste Uxue eta Olite bisitatzeko asmuarekin: bestiak beste Uxueko Erdi Aroko etxiak, Santa Maria elizixa eta barruan dagan Uxueko amabirjiñia, Oliteko jauregixa eta beste hainbat toki bertatik bertara ikusi zittuen eta edartu pasau eben eguna.



Santa Zezilia egunean, azaroaren 22an, Elena Perez-ek zuzentzen duen Usartza Txistulari Taldeak ganbara kontzertua eskainiko du Coliseoan, 12:30ean. Eurekin batera beste bederatziz musikari izango dira.



Eibarko Txistulari taldearekin batera, "Harituz" hari laukotea, "Molto Vivace" metal boskotea eta Isabel Laspiur pianojolea izango dira.



USARTZA EIBARKO TXISTULARI TALDEA

"Estilo eta erritmo desberdinak entzuteko aukera eskainiko dugu Santa Zezilia egunean"

- Zer eskainiko duzue Santa Zezilia eguneko ganbara kontzertuan?

Azken lau-bost urteetan horrelako kontzertuak egin ditugu sasoi honetan, eta aurten, Santa Zezilia eguna izanda, Coliseoan jende gehiago izatea espero dugu. Usartza Txistulari taldean zortzi kide gara eta, gurekin batera, "Molto Vivace" metal boskotea, "Harituz" hari laukotea eta Isabel Laspiur pianojolea izango dira. Guztira 17 musikaririk jardungo dugu. Egitaraua oso ondo aukeratu dago, jotzeko lan politak dira, disfrutatzeoak, eta ziur gaude publikoak ere gozatu duela. Guretzako lan handia da horrelako zerbitu antolatzea: estilo eta erritmo desberdinetako lanak aukeratu (habanera, tangoa, ezpatadantza, folk kutsua duten doinuak, soinu goxoak...), entsaioak koordinatu... Nahiko konplexua da eta gustatuko litzaziguke jendea gurekin izatea, ziur baikauden ezagutzen ez duten txistuaren aldea deskubrituko dutela.

- Aurten 80 urte beteko ditu Eibarko Udala Txistulari Bandak eta zuetako batzuk urte mardoa daramatzazue bertan.

Gaur egun zortzi kideko taldea dugu: hiru emakumezko eta bost gizonezko. Gazteenak 23 urte ditu eta nagusienak 58 inguru. Azken 30 urteetan txistuak sekulako eboluzioa izan du. Gutako batzuk txiki-txikitatik dihardugu txistua jotzen eta eboluzio hori ezagutu dugu. Eibarrek txistulari pila izan du eta hori argi ikusi zen azken Euskal Jaian. Gaur egun zaila da umeak eta gaztetxoak txistua ikastera animatzea, kirolean zein musikaren arloan daukaten aukera oso zabalak da-eta; gainera, talde finko batean jotzeko konpromisoa eskatzen du. Egoera horren aurrean gu gauza berriak asmatzen saiatzen gara. Gauza mardoa egin dugu txistua ezagutzera emateko eta beti egon gara edozein lekutan jotzeko prest; jendea "kokoteraino" egon behar da gu ikustez. Gauza desberdinak egin saiatzen gara. Esate baterako, Gabonetan, udaletxeko arkupeetan gelditu beharrean, "kontzertu mugikorra" egin genuen: herriko hainbat puntu aukeratu genituen eta gure atrilekin eta partiturekin joan ginen, auzorik auzo, gabonetako doinuekin. Aurten ere ziuurtenik horrela egingo dugu. Hilabete

batean kalejira eta hurrengoan kontzertua, tartekatuta egin ditugu. Kontzertuetan estilo eta erritmo desberdinak sartzen ditugu eta jendeak asko eskertzen du hori. Kalejiretan oso ondo pasatzen dugu; azken aldian hainbat auzotatik ibili gara eta herritarren erantzuna zoragarria izan da. Herriko jaietan ere hor egoten gara: Arrateko jaiak eta Santa Kruz eguna oso bereziak dira guretzako. Egia esan, jarduera asko izaten ditugu urte guztian; Eibartik kanpora ere sarritan joaten gara, adibidez Kezka Dantza Taldearekin.

- Nolako bilakaera izan du txistuak?

Oraingo delako 40 urteko txistuak eta gaur egungoak ez dauka zerikusirik. Gero eta konposagile gehiago dago eta formakuntza ikaragarria daukaten txistulariak daude; bide horretatik, txistuak ez dauka beste instrumentuen inbidiarik izan behar. Gaurko txistuak fisikoki ere desberdinak dira, beste soinu bat daukate, afinatuagoa. Jendeak uste du txistua bakarrik kalerako eta kalejiretarako dela, baina hori baino askoz gehiago da. Coliseoko kontzertuan txistua formato desberdinetan ikusi ahal izango denez, animatu zaitezte!



FELISA URZURIAGA UGARTEBURU

1. urteurrena: 2014-XI-5

"Zure irribarre eta samurtasuna BETIKO izango dira gure artean"

ZURE ALABA ETA FAMILIA GUZTIA

Haren aldeko URTEURRENEKO MEZA ospatuko da hilaren 8an (domeka), 12.00etan, San Andres parrokan



Urteroko moduan, azaruarekin batera Gaztaiñerre ospatzeko sasoiari sartu gara eta, urteroko moduan, jaixa noiz ospatu bihar dan, fetxiakin bueltaka dabiz asko. Eibarren behintzat, horren inguruko zalantzak argitu nahi dabenak Toribio Etxebarriaren "Viaje por el pais de los recuerdos" liburura jo, besterik ez dau egin bihar galdera horrerri erantzuteko: Arima egunaren osteko bigarren astelehena, hori da klabia. Arima eguna Domusantu egunaren ostekua, azaruaren 2xa dala kontuan hartzen badogu, kalendarixua eskuan hartu eta erraz etara geinkez kontuak: aurten Gaztaiñerre ospatzeko eguna azaruaren 16xa izango da gurian, baita Plaentxin be. Eta Ermuan, barriz, datorren astelehenian, azaruaren 9xan ospatuko dabe.



Gaztaiñak eta hildakuak ondrazten

Eibarren ez eze, Ermua eta Plaentxin hilleta ondorengo "onrra-janak" egitteko ohitturiari ixa gaur egunerarte eutsi detse, batez be basarrixetan. Izan be, sasoi batian hilleta bakotxian egitten ziran "onrra-janak" eta hildako guztiak goguan, Domusantu eta Arimen egunaren aitzakixarekin urtian behin anaitasunezko otordua egitteko tartia emoten dau Gaztaiñerrek. Izan be, ohitturia nundik datorren ikertzen jardun dabenak diñenez, ondrazjanak ei dagoz Gaztaiñerre egunaren jatorrixan eta gaur egunian jaixaren jatorrixarekin larregi akordau barik be, gure herrixan eta inguruan oindiok be gogor eutsi detsagu afarixa nahiz afari-merienda egitteko ohitturiari eta aurten be hala egingo dabe herriko etxe eta soziedade askotan.

Gaztaiñaren inguruko jaixak, baiña, ez dira hamengo kontua bakarrik, Euskal He-

rritik kanpora be askok ospatzen dittue eta. Jatorriz jai paganuak ziran, Elizaki denporiak kristautu zittuan arren. Edozelan



Galiziako Etxekuak bixar eta etzi ospatuko dabez "Magostuak".

be, nekazaritzari zuzenian lotutako jaixak izaten ziran eta, gaztaiñak sutan erretzen zittuen bittartian, komunitadeko kideen arteko harremanak sendotzeko asmuarekin ospatzen zittuen sasoi batian Kataluñako mendixetan hasi eta Galiziaraiño. Galizian ipiñi zetsen hain zuzen be "magosto" edo "magosto" izena eta holan ezagutzen dittue baita be Gaztela-Leonen, Extremaduran, Asturiasen eta Kantabrian. Gurian, barriz, Gaztaiñerre euskerazko izena ipiñi zetsen eta gaur egunian be holan ezagutzen dogu jaixa.

Magosto jaixa asteburuan

As Burgas Galiziako Etxekuak asteburu honetan ospatuko dabe gaztaiñak protagonista dittuan Magosto izeneko jaixa, enpanadari eskindutakarekin batera. Zapatu gozian, 11:00etan hasiko dira Urkizuko

basquestay



www.basquestay.com

info@basquestay.com

606 747 756

Apartamentu baten jabe bazara, errentan eman eta diru iturri bilakatu



Oin dala urte batzuk gaztaiñak saltzeko postu bat baiño gehiago egoten zan, baiña azken urtiotan saltzaille bakarra ibiltzen da gurian. Arratsaldero moduan, San Andres elizaren aldamenian, tren-makiñaren itxuria dakan bere postuan gaztaiñak erretzen topau genduan Pedro Ruiz eguztenian.

PEDRO RUIZ GAZTAIÑA SALTZAILLIA: "Galiziakuak dira onenak, baiña gero eta gitxiago dagoz"

- Noiz hasi zifan gaztaiñak saltzen?

Hogei urtetik gora daroiat herririk herri gaztaiñak saltzen. Eibarren ez eze Arrasaten eta Bergaran be postu bana dakaguz. Gasteizen bizi naiz eta, bestela, bakarrik herri batian saltzen ibiltzeko ez dau me-rezi egunero honaño etortziak. Urrixan erdialdian hasi eta urtarrillaren erdialderaiño ibiltzen naiz gaztaiñak saltzen, normalian lau hillebeterako permisua emoten deste udalian.

- Eta gaiñontzeko hillebetiak zertan emoten ditzuzu?

Beste zazpi hillebetietan mantekauak egitten doguz eta hórretxek saltzera juaten naiz herririk herri furgonetarekin. Nafarruan, iparraldeko herrietan batetik bestera ibiltzen naiz, urte morduia daroiat 21 herri hartzen ditzuen ibilbide bi egitten.

- Eta bixetatik zein saltzen dozu errezago?

Gauza bixak ondo saltzen ditzut, sasoiari sasoikua.

- Nunguak dira saltzen ditzuzun gaztaiñak?

Galiziakuak, hórretxek dira onenak eta nik behintzat ez dot besterik nahi. Azken urtiotan, baiña, Galiziako gaztaiña morduia Kanadara exportatzen dabiz, han oso ondo pagatzen detsez eta. Iaz Galiziakuekin batera, Avila edo beste tokiren batetik ekarritakuak nahastuta saldu zestazen, baiña segiduan konturatu nintzan, txikixaguak izatiaz gain azala kentzerakuan askoz gehiago kostatzen zalako. Kalian jateko izaten diranez, jendiak azala errez kentzia nahi izaten dau, oso inportantia da. Edozelan be, gauzak holan segiduz gero, urte gitxi barru guretako lujua izango da Galiziako gaztaiñak jatia.

- Gaztaiñerre dala eta, holako egunian bihar haundixa eukiko dozu, ezta?

Ez pentsa, lehenago askoz gehiago saltzen genduan. Iaz gazte asko kuadrillan partetik pasatzen ikusi nittuan, azkar jateko janari-poltsekin. Gaztaiñerren afarixa eginda be, askok ez dabe gaztaiñarik jaten oin...

parkian ospatzen, Ribeiro ardaia eta enpanada zatixak saltzeko txosnia zabalduta. 13:00ak aldera gonbidatuerei harrerria egin eta jarraixan VI. Enpanada Lehiaketia hasiko da. Parte hartu nahi dabenak etxian egindako okel-enpanadia presentau biharko detse epai-mahaikueri eta 14:00xetan hiru oneneri sarixa banatuko detse (150 euro eta diplomia, 90 euro eta diplomia eta 60 euro eta diplomia, hurrenez hurren). Eta jaixa arratsaldian bueltauko da, 18:00etatik 21:00etara gaztaiña erreak, txorizo-pintxuak eta Ribeiro ardaia salgai ipiñiko ditzue eta. Egun osuan Os Galaicos taldeko gaita-joliak jardungo dabe jaixa girotzen. Eta domekan be segiduko dabe Magostuak ospatzen: 11:30xetan Ribeiro ardaia, gaztaiña erreak eta txorizo-pintxuak saltzeko txosnia zabalduko dabe (14:30ak arte). Gaiñera, 11:30xetatik 12:30xetara umieri gaztaiñak duan emongo detsez.

Ondra janak AEK-kuekin

Azken urtietako martxari jarraituta, azaruak 16xan Gaztaiñerre ospatzeko "Ondra janak tabernaz taberna" antolatu dabe AEK Euskaltegikuak, udalaren laguntasunarekin. Asmua "gure ohittura zaharrerri eutsi eta euskeria zabaltzia" da eta, horretarako, euskaltegi parian daguan Paloma tabernan alkartuko dira, 19:00etan, eta jarraixan inguruko tabernetan trikitilarixekin kalejiran ibilliko dira, afari-merienda egitten. Betiko moduan, jende guztia animau nahi dabe eurekin bat egittera eta jaixa ospatzera.

Gabonetako OTARRA

2.000 €ko balioa duen Otarra

Prezioa: 1€

Zibit: Euskarara Elkarlana

eta kitto!

Et Carre Inglesa

1€

46"ko TELEBISTA eta gabonetako produktuak dituen otarra

2.000 euroko Gabonetako OTARRA

GAUR (19.00-21.00) BIHAR (13.00-14.00) KALEAN EROSTOKO AUKERA

SALMENA LEKUAK

- Korreos bulegoa
- Isasi okindegia
- Arriandui okindegia
- Izadi loradenda
- Mugika harategia
- Kultu taberna
- Etxeto prentsa
- Arriola prentsa
- Maria Ospital (Calbeton)
- Otegui harategia
- Zubi Gain taberna
- Bolintxo okindegia
- AEK
- Udal Euskaltegia
- San Andres gazategia
- Zabaleta okindegia
- El Tio Palancas

EIBAR

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Arte Ederrak ikasi zituen Natalie Garridok Leioan eta Florentzian amaitu zituen ikasketak. 27 urteko eibartarrak Itzamna diziplina anitzeko ikasketa akademian egiten du lan eta artearen inguruko beste hainbat alorretan ibili da aurtten. San Andresetako kartel irabazlearen egilea da eta, horrez gain, zinemara egin du jauzi bere mundu artistikotik urrundu gabe.

- Arrakasta handia izan du zure kartelak... Nondik etorri zitzaizun gantxoaren ideia?

Aspaldi ikusi nuen interneten pintzak ezkontzetan opari moduan ematen zirela eta, ez dakit nola, bueltatu zitzaidan hori burura. Kartelean baseritar bi agertzen dira eta emakumea da gizonari muxu ematen diona. Euskal Herrian ligatzen ez dela dioen topikoari egindako kritika da.

- Aurkezten zaren lehenengo aldia da?

Urtero aurkeztu naiz Eibarren. Donostian, Bilbon eta Gasteizen ere aurkeztu naiz, baina oso zaila da irabaztea. Gainera, lan handia eskatzen du hemendik-hara eta handik-hona mugitzeak.

- Aurten zine munduan ere betebetean sartu zara...

Bai, Ane Urkiola nire lagunak, Zea Bingo! film laburraren zuzendariak, arte zuzendari postua eskaini zidan eta baiezko biribila eman nion. Horrez gain, aurtten beste hiru film laburretan hartu dut parte lan berean. Baluta Balitz izenekoan, Meno Martin arte zuzendariaren ondoan lan egiteko ohorea izan dut, eta beraren-gandik asko ikasi dut.

- Zer egiten du arte zuzendari batek?

Arte zuzendaria atrezzoaz arduratzen da, batez ere: eszenografia muntatzen du. Garrantzitsua da aktoreen janzkera, orrazkera eta makillajea konbinatzea eta baita hori guztia dekoratua-reen konbinatzea ere. Horreta-

rako, arte arloan lan egiten duten langileak koordinatu behar dira.

- Zine munduan jarraitzeko asmoa duzu?

Bai. Beste bi film laburretan parte hartuko dut eta horri lotutako beste proiektu bat ere badut esku artean: Uztaritze Betelu nire ikaskide ohiarekin eta beste bi kiderekin batera, arte zuzendaritza talde bat sortzea.

- Zure artelan bat ikusteko aukera ere izan dugu Topalekuan...

Bai, aurtten egin naiz Kultur Elkarte baxkidea eta urteroko erakustaldian parte hartu dut. CMI K? du izena nire obrak, diseinu grafikoko kolore primarioei erreferentzia eginez. Izenekin nahiko lan izaten dut, obrek euren kabuz hitz egiten dutela iruditzen zaidalako eta zaila egiten zait izena jartzea.

- Zer espresatu nahi izan duzu?

Nire ibilbidea, izan dudana bilakaera. Hiru zapatila pare horiek Italian erabili nituenen erreplikak dira. Hiru kolore primarioak. K hizkiak kolore beltza adierazten du eta kolore horrek iluntasuna eta arazoak ekartzen dizkit burura. Orain arteko une latzak alde batera laga eta egin beharreko bide berria adierazteko.

- Zein asmo berri duzu?

Webgune bat egiten dihardut zapatilen ideiarekin jarraitzeko. Shoe tossing-a edo zapatila zintzilikatzea orain oso modan dagoen arte aldarrikapena da. Egia esan, neure burua identifikatua sentitzen dut horrekin.



Natalie Garrido
(ARTISTA)

“Kartela betiko topikoei egindako kritika da”

DESCUBRE-TE

AZAROAN iragarki hau erakutsita %1 Oeko DESKONTUA

Teak, kafeak, txokolatateak, eztiak... eta baxera bereziak!!

Probaleku, 4 - Bis (ERMUA) 943 03 15 81
descubreteneu@hotmail.es www.teteriadescubre-te.com

Isasi, 31 Egunero 06.00-22.00
943 207 737

*Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!*

Astelehenetik ostegunera
PINTXO-POTEA!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTLONDO

EH Sukarraren azken gezia

Urriaren 22an aurkeztu zuen EH Sukarrak "Azken gezia" lan berria, Bilboko Elkar liburudenda. Mikel Gorosabel rock taldeko beteranoak EH Sukarraren hasierako sasoiara buelta modukoa egin du eta, aspaldian bezala, Asier Serrano musikari eta idazlearen laguntza izan du abestiak sortzeko orduan. Emaitza "Azken gezia" izeneko diskoa izan da, "pultsu handiko kantak, rock bibrantea eta bizia" batzen dituen lana.

Eibarko taldeak "Uhinak" izenburukoa kaleratu zuela apenas urte bi igaro direnean eman du argitara lan berria eta, disko berria sortzeko, "taldearen sustraietara, atzera buelta" egin dutela azaldu du "Norton" taldeko ahots eta gitarrajoleak. Oraingoan punk azkarra, rock eta pop doinuak nahastu dituzte "konplexu barioko disko freskoa" egiteko. Izan ere, "Uhinak" izenburukoan EH Sukarraren aspaldiko abestiak eta berriago batzuk pilatu zituzten eta horrek bilduma kutsua eman zion, baina kalera atera berri duten lana oso bestelakoa dela argi laga nahi dute.

Azken urteotan taldearen osaketan hainbat gorabehera izan arren, gaur egun taldea osatzen duen hirukotea finkatuta ge-



ratu da: Mikel Gorosabel "Norton" jatorrizko kide bakarrarekin batera Loiola Madera (bateria) eta Axier Garai (bajua) dira EH Sukarra. Hirukotea izateak euretako bakoitzari lan gehiago eskatzen dio, "bakoitzak bere onena eman behar du, baina ohituta gaude eta, beraz, ez daukagu arazorik horretan. Bestalde, abantaila batzuk ere badauzka hirukotea izateak, adibidez hiru lagun izanik soinua errealagoa, moduren batean esateko 'jatorragoa' da".

Kantu berriek osatutako lana izan arren, "nostalgia puntua" ere baduela diote, baina edozein modutan ere "betiko jarraitzaileen gustokoa" izango dela pentsatzen dute. Diskoa betiko estiloari jarraitzen dioten abestiekin hasten da: "Aspaldiko loreak", "Atsedentleku perfektuenak" eta "Bizi-tzaren filmotekak" izenburukoak lirateke

horren adibiderik garbiena. Baina horien atzetik estilo berrietara zabaltzen diren beste batzuk, "Herio" balada, adibidez. Eta erritmo elektronikoein jantzi duten "San Juan suen bezperan" abestia disko berriko guztien artean dantzagarriena "eta ausartena" dela diote.

Baina, definizio eta adjetiboetan galtzen hasi baino lehen, lan berria nolakoa den jakin nahi duenak abestiak entzutea da horretarako biderik egokiena. Gainera, diskoa ezagutzera emateko kontzertuak ematen hasita daude. Aurreko asteburuan Donostian jo zuen taldeak eta hurrengo kontzertuetarako egun batzuk ere lotuta daukate: bihar Zornotzan aurkeztuko dute lan berria zuzenean, 27an Gasteizko gaztetxean joko dute eta 28an, berriz, Puente La Reinako Gares aretoan.



Neska gazteendako autodefentsa Indianokuan hilaren 20an

Bereziki neska gazteentzat, 12-18 urte bitartekoentzat pentsatuta dagoen "Autodefentsa feminista" ikastaroa antolatu dute udaleko berdintasun arloko arduradunek. Indianokua Gaztelekuan emango dute kurtsoa, azaroaren 20an (barixakuan) eta lau orduko iraupena izango du, 16:45etik 20:45era. Ikastaroan landuko dituzten artean, besteak beste, emakumearen kon-

trako erasoak zer diren eta nola bizi diren, zerk eragiten duen beldurra eta horri aurre nola egin, eraso baten aurrean nola erantzun, galdutako autoestima nola berreskuratu, emakumeen eskubideen defentsa, emakumeen arteko elkartasuna eta harremanak nola landu eta beste hainbat gai daude. Izen-ematea hilaren 15era arte egin daiteke, Indianokua gaztelekuan bertan.



★ ★ ★ ★ ★
Patukos

JAIORRI ETA HAUR TXIKIENTZAKO ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

**Errebal kalea, 1
(Aldapatxo)**

<http://patukos.net> <http://facebook.com/patukosbebe> Tel: 943-259281

+ OSASUN GAZDA

Dentistak

arat
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

Clinicas dentales UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. Esk. Telf: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA
Urkitu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.martadoloresolaizola.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Telf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

Ginekologia

M^a Jose Ruiz de Porres DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57

Okulistak

Oftalmologoak

Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI

ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuareta
943 20 19 82



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikina

- Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



**ELENA
AIZPUN**
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maider
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloan
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPELAGOGOA

Tel. 605 75 75 06

- Lengoia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Autoestima arazoak
- Dislexia



Arantza Alvarez
Psikologoa-Sexologoa
1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia

AROR

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66

Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsikoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia

PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Urkizu, 13 - beheka

Tel. 943206823 eta 686859023



Denboraldi hasiera bikaina egin dute Ipurua Klubeko oinarrizko talde biek: Iruñeko torneo horren adibide, urrezko bi dominekin.

Bi urrezko domina biharko Euskalgym-ari gogoz ekiteko

Aurreko domekan Iruñean jokatutako Nafarroako Erresumaren Torneoan, Ipurua gimnasia erritmikako klubaren oinarrizko talde biek podiumaren gorenera igotzea lortu zuten. Kadete mailakoek lehen ariketan eskuratutako bigarren postua hobetu zuten bigarrenean eta, lehen postu horrekin, Alaitz Aranbarri, Nahia Arguiz, Elena Sudupe, Malen Txurruka eta Elene Varela txapeldunak izan ziren. Alebin mailakoek ez zuten

gutxiago nahi izan eta, federatuen zirkuitoan berriak badira ere, bost pelotekin maisu jokatzen dutela erakutsi zuten, torneoako onenak izateraino. Iruñekoak aurrez Cuencan irabazitakoa urrezkoa eta Euskadiko Txapelketan eskuratutako zilarrezko biak berrestera dator bihar Gasteizko Buesa Arenan jokatuko den Euskalgym-ari begira; hor izango dira, urtero lez, munduko gimnasta onenak arratsaldeko saioan.

Kalamuakoez lortu zituzten Euskadiko dominak Madrilen

Jiu Jitsu eta Ne Wazako Espainiako Koparako baliagarria zen Madrilgo Komunitateko torneoan, Kalamua Klubeko ordezkariak lortu zituzten Euskadiko selekzioak bereganatutako lau dominak. Horrela, Villaviciosa de Odon-eko udal kiroldegian jokatutako jardunaldian, Julen Ramonek zilarrezkoa lortu zuen Ne Wazan eta brontzezkoa borrokan, eta beste domina banarekin etorri ziren Iker Martinez (zilarra) eta Unai Abasolo (brontzea).



Kirol Patronatoaren udazken-negurako aukerak

Eibarko Udal Kirol Patronatoak udazken-neguko zapatu eta domeka arratsaldeetarako zerbitzua ipini du martxan, ume (2tik 5 urtera arte) eta gurasoentzat jolasteko gunea zabaltearekin batera. Zerbitzuak 17.30etik 19.30erako ordutegia izango du eta, instalazioa doan izango bada ere, kudeaketa gurasoen esku egongo da -arduraduna izateko gazteria@eibar.eus helbidean eman behar da izena; arduradunik gabe, ez da zerbitzurik izango-. Horren inguruko zuzeneko informazioa

eskainiko da bihar eta etzi (aipatutako orduetan) Ipurua kiroldegiko beheko kantxan.

Bestalde, eta urtero moduan, patinekin jarduteko denboraldia hasiko da domekan eta martxoaren 20ra arte iraungo du; aktibitate hori 18.00etatik 20.00etara egingo da. Eta azaroaren 1etik martxoaren 27ra arte neguko ordutegia egongo da martxan domeka eta jaiegunetan: instalazioak zabalik egongo dira goizez (09.00-13.00) eta arratsaldez (16.00-20.00).



Asteburu bikaina Aitor Hernandezentzat

Specialized-Emua taldeko txirrindulariak garaipen bikoitza lortu zuen aurreko zapatuan eta domekan, Espainiako Kopako lehenengoko bi probetan (zortzi izango dira guztira). Denboraldiko seigarren garaipena Audioko VII. Ziklokrosean lortu zuen, iaz leku berean eskuratutakoa berretsiz, Felipe Orts, Kevin Suarez eta Javier Ruiz de Larrinagaren aurretik.

Eta domekan, Muskizko VIII. Sarian, zortea izan zuen lagun ermuarrak, bi itzuliren faltan aurretik zihoan Orts valentziarrek izandako matxuraz baliatu baitzen aurrea hartu eta garaipena lortzeko. Asteburu honetan ere erronka bikoitza izango du Aitor Hernandezek: bihar Arabako Zuiako Ametzagan eta etzi Elorrión (iaz garaile izan zen bietan).

Garajes Garciak Durango garaitu zuen foball-zaletuan

Modu horretan, gainera, partidurik galdu ez duen talde bakarra izateaz gain, Garajes Garcia Durango liderrarengandik hiru puntura gerturatu da. Puente eta Oierren golak jasota, Durangok denboraldian lehen porrota izan du, orain arteko partidu guztiak irabazi ondoren. Garajes Garcia.com, bestalde, partidurik galdu ez



badu ere, hirutan berdindu egin du. Saillkapeneke behe aldean dauden taldeen artean, Bar Aretok irabazi barik jarraitzen du, baina goian dagoen Azkena Adahirekin berdindu zuen azken jardunaldian; domekan ez du errazago izango, liderrarekin jokatu beharko baitu.

Somos galtzaile Tolosan, Haritzak Pulpo egurtu zuen

Somos Eibar Eskubaloiak ezin izan zuen punturik atera Tolosa liderraren kantxan eta, partidu guztian atzetik joan eta gero, 33-30 galdu egin zuen (19-14 atsedendian). Bigarren zatian neurketa berdintzeko aukera izan zuten eibartarrek, baina hiru penalti jarraian galtzeak ez zien hori gauzatzeko aukerarik eman. Iker Eizagirre izan zen Somos-eko onena, angelurik gabe-

ko jaurtiketetan golak eginez. Haritza Eibar Eskubaloiko bigarren taldeak, bestalde, garaien ezin garbiagoa lortu zuen Zumaiako Pulporen aurrean Gipuzkoako 1. mailako partiduan (34-12). Jubenil mailako Euskal Ligan, IK-4 Teknikerrek Pulpo aurkari zuzenari 24-26 irabazi zion eta, azkenik, kadete mailako nesken taldeak Ordizia egurtu zuen (5-36) Lurraldeko txapelketan.

Hiruna garaipen eta porrot herriko pilotarientzat

Aurreko asteburuan Klub Deportiboko pilotari gazteenek euren partidua irabazi zituzten, baina nagusienek ez zuten zorte bera izan: Ibarra-Acuña benjamin bikotea Deban nagusitu zen eta Camina alebinak eta Ander Sanchez infantilak Oñatiko eta Arrasateko ordezkariak, hurrenez hurren, irabazi zieten. Bestalde, Azkargorta infantilak eta senior mailako bikote biek (Agirresarobe-Lantz eta Narbaiza-Zubizarreta) galdu egin zuten. Asteburu honetan partidu bakarra izango da Eibarren -infantil mailan Abalosek Tolosako ordezkariaren aurka jokatu duena-, Deporreko beste pilotari guztiak kanpoan jokatu baitute.



Eibarrek Getafe hartuko du bihar Ipuruan (20:30)

Aurreko domeka eguerdian Rayo Vallecanori 1-0 irabazita, Mendilibarren mutilak BBVA Ligako 6. postura igo dira. Asteburu honetan aukera polita dute postuari eusteko Ipuruan jokatu baitute berriro, oraingoan Madrilgo beste talde baten aurka: saillkapenean sei puntu gutxiagorekin dagoen Getafe etorriko da Eibarrera. Partidu horretarako Eibarrek ezingo du Dani Garcia zelairatu, bost txartel jasota zigortuta dagoelako.

Bestalde, aurreko barixakuan klubak akordio berri bat sinatu zuen Arrasateko Udalarekin Atxabalpeko instalazio berriak eraikitzeko. Han bigarren zelai bat egingo dute eta Eibar FT-k guztira 13.000 m²ko espazioa erabili ahal izango du. Horrez gain, taldeak lagunarteko partidua jokatu du datorren asteko eguenean, hilaren 12an, Tarbesen 1. mailako Toulouseren aurka.



Adur Juaristik Ironmana amaitu zuen

Deltec Eibar Triatloi Taldeko atletak bere lehen Ironmana amaitu zuen Marina D'Or-en. 3'8 kilometro egin zituen igerian, 180 bizikleta ganean eta maratonia korrika. Azken hau luzea egin zitzaion arren, 12 ordu eta 15 minututan amaitu zuen.



PEDRO IZAGIRRE ZULOAGA^{ren}

2. urteurrena (2013-XI-8)

Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

ETXEKOAK





Martitzenean, Harixa Emoten irakurketa taldearen saioan, Garazi Kamio idazle andoaindarra izan zuten "Orube Abandonatuak" bere liburuaz mintzatzeko. 2013. urtean XIII. Agustin Zubikarai saria eskuratu zuen lan horri buruzko proiektuari esker eta iaz liburu argitaratu zuen.

GARAZI KAMIO (idazlea)

"Bakardadea azaleratzen duten arrazoiak ekarri nahi izan ditut"

- Nondik etorri zitzaizun orube bat istorioaren oinarri izateko ideia?

Idea Castillo Suarezen "Orube abandonatuak" poematik hartu nuen, "urtebetetze festa" liburuaren hasieran dagoen poema bat da. Poema horretan, urtebetetze tarta baten bila joan den hauraren istorioa kontatzen du. Etxera bueltatzean dena suntsituta dagoela dio, dena dela orube abandonatu bat. Ideia polita zela iruditu zitzaidan, indar handikoa, beraz, orube bat partekatzen zuten pertsonaien istorioak batu nahi izan nituen.

- Zer garrantzi du orubeak liburuan?

Mariok, Mirenek eta Maiderrek ez dute beren izenen lehen letra soilik partekatzen. Denboran momentu desberdinetan bizi dira eta ez dute elkar ikusten. Hori bai, gauza ugari dituzte komunean, eta horietako bat etxe baten orubea da.

- Orubeaz gain zer dute komunean pertsonaiek?

Bakardadeak batzen ditu, hiru garai desberdinetan bizi izan ziren tabu edo isilpekako gaiak. Batentzat beharbada esanguratsua den elementua beste batentzat ez da kasualitate hutsa besterik izango. Garai bakoitzean indar desberdina izango dute protagonisten inguruan dabilzan gauzek. Bakardadea azaleratzen duten arrazoiak ekarri nahi izan ditut. Askotan ez gauda bakarrik hala nahi dugulako, behartu egiten gaituztelako baizik. Eta bakardadeak batu ahal baditu ere, bakoitzak arrazoi desberdin bat du atzetik.

- Garaiak aukeratzeko orduan ba dago arrazoinen bat?

Bai, noski. Gerra ondorengo lehenengo urteak ekarri nahi nituen, batzuetan ahaztuta ditugun urteak. Oso beltzak izan ziren, 80ko hamarkada astindu zuen heroinaren kontua bezalaxe. Bi gai horien inguruan hitz egiteko gogoia nuen, gehiago jakitekoa. Maiderren kontakizunean, aldiz, gaur egungo itxurakeria salatu nahi izan dut. Ezkutatua dagoen gai bat da, baina jendeak edozer gauza egingo du itxura mantentzeko. Gaixotasun bilakatu den gaia dela iruditzen zait, gainera.



Bach eta jazz Coliseoan elkarrekin

Gaur 20:30ean "Johann Sebastian Jazz" izenburuko eskainiko dute Coliseoan Iñaki Salvador eta Alexis Delgado pianojoleek. Musikari biek euren pianoak aurrez aurre ipiniko dituzte, hartu-eman bidai modukoari elkarrekin ekiteko. Izan ere, ikuskizuna esperimentu gisara planteatuta sortu dute, euretako bakoitzarentzat pasioa diren Bach eta jazz musika, elementu bi horiek elkartuta eta, pianoarekin, bien arteko elkarrizketa musikala sortuta.



Koktel ikastaro arrakastatsua

Berbetan programako tabernarientzat ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako koktel ikastaroa bikain joan zen martitzenean. Basque Culinary Centerren ikasitako Ander Diezek edari ezberdinak nola prestatu erakutsi zien parte hartu zuten tabernariei eta hauek pozarren jarraitu zituzten zein baino zein goxago ziren konbinatuak prestatzeko azalpenak.



Aktore txiki bikainak

Aurreko barixakuan Gurasoak Berbetan ekimenaren barruan egin zen antzerki tailerrean parte hartu zuten umeez ondo baino hobeto eman zuten arratsaldea. Entsegua amaitzean gurasoentzat antzezlan egin zuten ...eta kitto! Euskara Elkartaren lokalean.

Asier Errasti Jaialdiko lanen emanaldiak

Plano Corto elkarteak antolatutako 16. Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdiko epai-mahaia aurtengo lan finalistak aukeratu ditu eta hauek dira Javier Aguirresarobe Sarirako hautatu dituztenak: "2037" (Enric Pardo), "40 aniversario" (J. Enrique Sanchez), "42 latidos" (Joaquín Villalonga), "5 segundos" (David González Rudiez), "Acabo de tener un sueño" (Javi Navarro), "Artificial" (David Pérez Sañudo), "Ayer y mañana" (Rodrigo Ruiz-Gallardon), "Barbara" (Santiago Esperon), "Biodiversidad" (Guillermo Chapa), "Con la boca cerrada" (Anna Farre Año), "Dark shadow" (Juan Lopez eta Sergio Gonzalez), "Deber" (Angel Manzano), "El jardín de las delicias" (Jorge Muriel), "Encuentro en la tercera edad" (Victor Ruiz Junquera), "Feliz cumpleaños" (Alberto Gallego Ortiz), "Hago bien en recordar" (Cesar Roldan), "La propina" (Esteban Crespo), "Los huesos del frio" (Enrique Leal), "Metros utiles" (David Cervera), "Monsters of the night" (Ruben Navarro), "Oscillation" (Didac Gimeno), "Poor sailor" (Victor Carrey), "Pueblo" (Maria Pardo), "Sara a la fuga" (Belen Funes), "Sin mirar" (Manuel Martinez), "Stela" (Ainhoa Menendez), "Supercool" (Hugo Silva), "Teatro" (Ivan Ruiz Flores), "They will all die in space" (Javier Chillón), "Todo lo demás" (Federico Utermann), "Un mañana mejor" (Aritz ET eta Mikel Roman), "Unary" (Luis Aviles Baquero), "Vainilla" (Juan Beiro) eta "Wut" (Sergi Marti); animazioan, berriz, "Viaje a pies"



(Khris Cembe), "El lugar adecuado" (Fernando Franco eta Begoña Arostegui), "Rupestre" (Enrique Diego), "I said I would never talk about politics" (Aitor Oñederra) eta "Amor de mono" (Paulo Mosca eta Abel Sanchez); euskerazko lanen artean, "Lasterketa" (Patxi Basabe Perez de Viñaspre), "Igande bateko proposamena" (Ruben Egaña) eta "Maitaleak" (Aitor Zarzuelo) aukeratu dituzte; eta eibartarren artean, berriz, Oscar Lopez de Zubiriaren "Monstruos de riooooo".

Lan horietako asko datorren astean ikusteko aukera izango da, astelehenetik barixakura Coliseoan egunero 20:00etatik 21:30era eskainiko dituzten emanaldietan (sarrera doan). Sari banaketa ekitaldia, berriz, azaroaren 14an (zapatuan) egingo da Portalean, 19:30ean eta orduan emango dituzte ezagutzera aurtengo irabazleak.

Bertso jaialdirako sarrerak salgai

San Andres jaien inguruan ...eta kitto! Eus-kara Elkarteak urtero antolatzen duen bertso jaialdia azaroaren 20an egingo da aurten, antolatzaileek domekatik barixakura aurreratzearabaki dute eta. Portaleko areto nagusiak 19:00etatik aurrera hartuko duen jaialdian Sustrai Colina, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio eta Beñat Gaztelumendi bertsola-

riek jardungo dute eta gai-jartzailea Jon Mikel Mugika izango da, baina aurretik, 18:30ean aurtengo bertso-paper lehiaketako irabazleei sariak banatuko zaizkie eta irabazleek bertsoak abestuko dituzte. Nahi duenak gaurtik hasita dauka saiorako sarrerak erosteko aukera, Depor, Kultu eta Sagar Bitza tabernetan (6 euro balio du).

laburrak

ERRIGORA

Domekan amaituko da Errigoraren udazkeneko kanpainarako eskaerak egiteko epea. Nafarroa hegoaldeko kalitatezko produktuekin osatutako otarra 50 eurotan eskatu nahi duenak herriko ikastetxeetan, eskalategietan, Guridi, Depor eta Beleko tabernetan eskatu daiteke eta horrez gain www.errigora.eus webgunean ere jasoko dituzte eskaerak. Eibarko arduradunekin kontaktuan ipintzeko eibar@errigora.eus helbidera idatzi daiteke.

631 ZENBAKI SARITUA

Musika Eskolako trikitilari gazteek aurreko barixakuan egindako zozketan zenbaki sariduna 631 izan zen eta horren jabeak eramango du, beraz, bertako produktuz betetako otarra (errifan dagoen telefonora deituta saria jasotzeko azalpenak emango dizkiote).

SAN ANDRES BERTSO JAIALDIA

M^a LUISA GARATE ALTUNA "Marialui" (2014-XI-6)

"Ez ditugu inoiz ahaztuko izan
dituzun ilusioa eta bizipoza"

URTEURREN MEZA

azaroaren 6an, barixakuan, 19.00etan, San Andres parrokiari



Trio Basaur gaur Elgetako Espaloian

Gaur gauean, 22:30etik aurrera Trio Basaur talde eibartarrak kontzertua emango du Elgetako Espaloia kafe antzokian. Duo Plaentxiko Jose Luis Badiolak eta Jesus Urizarrek, Santi Sarasketarekin batera berriki osatutako hirukoteak, orain ar-

teko bideari jarraituta, Latinamerikako doinuak eskaintzen ditu eta gaur gauerako prestatu duen emanaldian ere hala egingo du. Sarrerak 8 euro balio du aurretik erosiz gero eta, bestela, takillan 10 eurotan ipiniko dute salgai.



BOJ tailerrari buruzko erakusketa

Datorren asteko eguean zabalduko dute "1905 BOJ 2015" erakusketa Armagintzaren Museoan, Portaleko 5. solairuan. Batez ere kortxoak ateratzeko edota latak irekitzeko tresnak ekoizteagatik ezaguna den Eibarko enpresa honek bere sorreraren 110. urteurrena ospatzen dihardu aurten eta, hori dela eta, erakusketa berezia prestatzen ari dira. Hilaren 29ra arte egongo da bisitatzeko aukera, museoak atek zabaltzen dituen ordutegian: eguaztenetik zapatara bitartean 16:00etatik 20:00etara eta domeketan, berriz, 10:00etatik 13:00etara.



Sostoaren emanaldirako sarrerak salgai

Azaroak 28an, 20:00etan, "Viva la opera" kontzertua eskainiko dute Opera Divertimentok eta Sostoa abesbatzak elkarrekin. Talde bi horiekin batera emanaldian Silvina Arroyo, Jose Bardaji eta Andoni Barañano abeslariak eta Alexandra Andreeva eta Isabel Laspiur

pianojoleak hartuko dute parte. Nahi duenak sarrera aldeztu aurretik erosteko aukera dauka, 15 eurotan, Coliseoko leihatilan (astelehentean 19:00etatik 20:00etara eta barixakuetan 21:00etatik 22:00etara) edo, bestela, interneten, www.kutxabank.es helbidean.



Perkusio ikuskizun harrigarria

Bihar 20:30ean Toom-Pak perkusio taldeak "Reciclart 2.0" izenburuko lana eskainiko du Coliseoan. Felipe Dueñas, Micky Parej, Chacho Velayos, Manuel Leal eta Gorka Gonzalez protagonista dituen ikuskizunak "jendea zur eta lur" lagatzen duen horietakoa da: "Tuberiak, poltsak, botilak, makilak, autoen gurpilak, gasolina-bidoiak, baloiak... gure inguruan aurki dezakegun edozein objektu aprobetxatzen dugu musika eta ikuskizun izugarria sortzeko". Sarrerak 15 euro balio du.



Mundua bizikleta gainean

Azaroa osoan martxan egongo den Munduko Paisaiak egitasmoaren barruan, martitzenean "El mundo en bicicleta" pelikularen emanaldia eskainiko dute Portalean, areto nagusian, 19:00etan hasita. Filmak hiru urtean munduan zehar bidaiatzen ibili zen Andoni Rodelgo eta Alice Goffart bikotearen eta beraien seme-alaba Maia eta Unairen (bigarren hau bidaiari, 2011an jaioa) abentura kontatzen du. Izan ere, bizikletara igo eta pedalei eraginda, familia honek mundua zeharkatzeko bidaiari ekin zion beste leku, kultura eta bizimoduak ezagutzeko asmoarekin, bidean topatzen zuten esperientzia eta bizipenei zabalik beti. Bidaiari zehar ehundaka irudi filmatu eta jaso zituzten eta horiek erakustearekin batera, esperientzia eta pasadizo ugari kontatzen dituen filmak. Bidaiari buruzko informazio gehiago www.mundubicyclette.be webgunean jaso dute.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, IRATI Zarrua, etxeko printzesa, haraiñegun bederatzi urte egin zenduaz-en-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, BEÑAT, gure etxeko txikitxuaren lehen urtetxuan! Muxu erraldoia famelixa guztiaren eta, batez be, Markelen partez.



Ongi etorri, LUKÉN Osoro Blanco!, urriaren 23an jaixo ziñan-eta. Muxu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LOREA Penedo, bixar zortzi urte egingo dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, zure ahizta Jonen partez.



Zorionak, HIART, haraiñegun lau urte egin zenduezen-eta. Muxu haundi bat Ekain nebaren eta famelixaren partez.



Ongi etorri, ENEKO, hillaren 2xan jaixo ziñan-eta. Zorionak zure guraso Irantzun eta Enrikeri. Zure famelixaren partez.



Zorionak, LORE Maiora, domekan bederatzi urte egingo dozuz-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, MARTIN!!, gaur sei urte egitten dozuzelako, txapeldun. Patxo haundi-haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, GARI, gaur urtetxua betetzen dozu-eta. Muxu potolo-potoluak famelixaren partez.



Zorionak, BEÑAT, atzo hiru urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat Ibai eta famelixaren partez.



Zorionak, ARIANE, atzo sei urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat, printzesa, etxekuen partez.



Zorionak, IZAR!, datorren martitzean 11 urte beteko dozuz-eta. Muxuak etxekuen partez.



Zorionak, KOLDO eta AMATXO. Ondo pasatu eta muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ARAITZI!, zure 10. urtebetetzian. Zure lagun eta senidien partez.

hildakoak

- Jose Luis Urbieto Matxiñena. 70 urte. 2015-X-27.
- Luisa Eizagirre Arruti. 85 urte. 2015-X-29.
- Manuel Leiza Reparaz. 90 urte. 2015-X-30.
- Jose Martin Agirre Aranguren. 90 urte. 2015-XI-2.
- Jose M^a Muguruza Ibarzabal. 86 urte. 2015-XI-2.
- M^a Teresa Arana Zubizarreta. 87 urte. 2015-XI-3.

jaiotakoak

- Sara Mora Aberrane. 2015-X-12.
- Julen Larrañaga Arrate. 2015-X-29.
- Ayoub El Maslouhi. 2015-X-30.
- Marc Muñoz Quero. 2015-X-30.
- Eneko Aranzabal Dorado. 2015-XI-2.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

7an: 16.30, 19.30, 22.30
8an: 17.00, 20.00 (Antzokian)
9an: 20.30 (Antzokian)

“Spectre”

Zuzendaria: Sam Mendes



(2 ARETOAN)

7an: 17.00, 19.45
8an: 17.00, 20.00
9an: 20.30

“Los miércoles no existen”

Zuzendaria: Peris Romano



(1 ARETOAN)

7an: 22.30 (2 aretoan)
8an: 20.00
9an: 20.30

“Mi gran noche”

Zuzendaria: Alex de la Iglesia



(ANTZOKIAN)

8an: 17.00

“Hotel Transilvania 2”

Zuzendaria: Genndy Tartakovsky



BARIXAKUA 6

GAZTELEKUA

16.30. Disparatea. Indianokuan.

URTEURRENA

18.00. Greenfarm-en 6. urteurrenaren ospakizuna: kopa kanabikoa, dastaketa.
20.30. Sari-banaketa. Musika, postre kanabikoak... Greenfarm-en (E.Garate, 1).

BILERA

19.00. Sanandresak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Kultun.

ZINE-FORUMA

19.00. "Conociendo a Jane Austen", Loredi Salegik dinamizatuta. Defibel-ek antolatuta. Sarrera doan. Portalean.

MUSIKA

20.30. "Johann Sebastian Jazz", Iñaki Salvador eta Alexis Delgadoren eskutik. 7 euro. Coliseoan.

MUSIKA

22.30. Trio Basaur taldea. Espalioian (Elgetan).

ZAPATUA 7

TEKNOLOGIA ETA ZIENTZIA ASTEA

11.00. Topaketa, Teknologia eta Zientziaren Astearen harira. Ikasmaker elkarteak eta Omnis Club-ak gidatuta. Armagintzaren Museoa.

MAGOSTO-ENPANADA JAIA

11.00. Ribeiro ardoa eta enpanada saltzeko txosna zabaltzea.

13.00. Gonbidatuei harrera. VI. Enpanada Lehiaketa.

14.00. Sari-banaketa.

18.00. Gaztaina erreak, txorizo-pintxoak eta Ribeiro ardoa salgai (21:00ak arte). Os Galaicos gaita-joleak. As Burgas Galiziako Etxekoek antolatuta. Urkizuko parkean.

PINTXO LEHIAKETA

12.00/15.00. Ekipintxo ekitaldia, 12 tabernekin (pintxo+edaria, 2 eurotan). Musika zuzenean. Loadinn-ek antolatuta. Untzagan.

1944-AN JAIOTAKOAK

13.00. Piskolabisa eta zapi-banatzeta, Arkupen.
14.00. Talde argazkia. Untzagan.
15.00. Bazkaria. Unzaga Plaza hotelean.

GAZTELEKUA

17.00. Disparatea. Indianokuan.

KIROLA FAMILIAN

17.30. Kirola Familian ekimena martxan ipintzea eta informazioa, 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian (kantxan).

UMEENDAKO TAILERRA

18.00. Eibar FT-ren armarría aurpegian margotzeko tailerra. El Corte Inglesean.

DANTZA

20.30. "ReciclART 2.0" dantza eta musika ikuskizuna, Toom-Pak konpainiaren eskutik. 15 euro. Coliseoan.

DOMEKA 8

MAGOSTO-ENPANADA JAIA

11.30. Ribeiro ardoa, gaztaina erreak eta txorizo-pintxoak saltzeko txosna (14:30ak arte). As Burgas Galiziako Etxekoek antolatuta. Os Galaicos taldeko gaita-joleak jaia girotzen. Urkizun.

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii. Indianokuan.

KIROLA FAMILIAN

17.30. Kirola Familian ekimena martxan ipintzea eta informazioa, 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian (kantxan).

ASTELEHENA 9

IKASTEN

10.00. Teknoforum. Untzagako jubilatuta etxeko liburutegian.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Eskumen emozionalak" saioa, Gurasoak Martxan ekimenaren barruan. Portalean.

ASIER ERRASTI JAIALDIA

20.00/21.30. 16. Film Laburren Jaialdian aurkeztutako lanen emanaldia. Coliseoan.

MARTITZENA 10

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Zinemaren hizkuntza (I)", Pedro Saldaña zine zuzendariaren eskutik. Armeria Eskolan

IKASTEN

16.00. Punto tailerra.
17.00. Joskintza tailerraren lehen txanda (2. txanda 18:30etatik aurrera). Portalean.

BILERA

19.00. Udalaren bilera irekia, Urkikoekin. San Jose Obrero auzoko elizan.

MUNDUKO PAISAIK

19.00. "El mundo en bicicleta" pelikularen emanaldia, Munduko Paisaiak programaren barruan. Sarrera doan. Portalean (areto nagusian).

ASIER ERRASTI JAIALDIA

20.00/21.30. 16. Film Laburren Jaialdian aurkeztutako lanen emanaldia. Coliseoan.

EGUAZTENA 11

IKASTEN

10.00. Tertulia-kafea: "Erljioa eta...". Untzagako jubilatuta etxean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

IKUS-ENTZUNEZKOA

19.30. "Ardo eta arrainaren ibilbidea", ikus-entzunezkoaren emanaldia, Periko Iriondoren eskutik. Klub Deportiboan.

ASIER ERRASTI JAIALDIA

20.00/21.30. 16. Film Laburren Jaialdian aurkeztutako lanen emanaldia. Coliseoan.

EGUENA 12

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Napoleon (II)", Urko Barros Historian lizentziadunaren eskutik. Armeria Eskolan.

AUZOETARA BISITA

11.00. Eibarko EH Bilduren bisita, Barrena-Azitain ingurura.

GURE BALIOAK SARIA

18.30. Eibarko Koro Gaztea eta ongi-etorria.

18.40. Garbiñe Biurrun epailearen hitzaldia.

19.10. Gure Balioak Saria 2015 Antonio Cancelori emango diote.

19.25. Eibarko Koro Gaztea.

19.30. Agurra eta luntxa. Coliseoan.

KALETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ASIER ERRASTI JAIALDIA

20.00/21.30. 16. Film Laburren Jaialdian aurkeztutako lanen emanaldia. Coliseoan.

MIKRO-ANTZERKIA

21.30. "El reencuentro" lana, Nerea Ariznabarreta eta Amaia Arriaranen eskutik. Sutondo kafetegian (Isasi, 31).

lehiaketak

✓ Eibar Beldur Barik 2015

Izen-ematea: Interneten, beldurbarik.org helbidean. **Azaroaren 11ra arte.**
 Informazio gehiago: Berdintasun Arloa (Portalea, 4. pisua; 943708440;
 berdintasuna@eibar.eus) eta Andretxea (Zezendibe, 9 behea; 943700828;
 andretxea@gmail.com).

diru-laguntzak / bekak

✓ Ekintzaileentzat

Eskaerak: **Azaroaren 9ra arte**, Debegesan (Vanessa Hortas,
 ekintzaile@debegesa.eus / 943820110).

ikastaroak

✓ Zumba ikastaroa

Noiz eta non: Astelehen eta eguenetan (18.00-19.00), Oihane Sarasketaren eskutik. Arrate Kultur Elkartean. **Izen-ematea:** arratekultu@gmail.com / 943202299 / bulego orduetan (30 euro bazkideek, 35 euro bazkide ez direnek).

✓ Zeinu hizkuntza ikasten hasteko ikastaroa

Noiz eta non: Urtarriletik aurrera, eguaztenetan (19.00-21.00). 30 ordu. Bergarako ARANSAGI Gorren Zerbitzuaren egoitzan. **Izen-ematea:** 943762703 (87 euro).

erakusketak

✓ Azaroaren 15era arte

INDALEZIO OJANGUREN XXVIII. argazki lehiaketan saritutako lanen eta beste hainbaten erakusketa. Portalean.

"POLITIKO-POETICO 5" proiektuaren erakusketa. Portalean.

ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN II. ARTELAN ERAKUSKETA. Portalean.

✓ Azaroaren 1etik 30era

IÑAKI CAMPOSEN argazki erakusketa. Portalea tabernan.

"CLUB FOTOGRAFICO 76" argazki erakusketa. Deportiboan.

OSKAR BAGLIETTOREN "Instantes en la montaña" argazki erakusketa. El Ambigu tabernan.

MUNDUKO PAISIAK - LIBURUTEGIAK TOPALEKU

"Kulturantzitasuna". Juan San Martin liburutegian.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

S U D O K U A

			5			9	4	
				7				1 2
		3		9	4			
		8	7			2		
7				6				5
		5			9	1		
			8	2		7		
8	3			4				
	6	9		7				

7	6	1	2	5	4	3	9	8
5	3	9	7	1	8	4	2	6
4	8	2	9	6	3	7	5	1
2	7	5	6	3	1	8	4	9
8	9	6	4	7	5	1	3	2
1	4	3	8	2	9	5	6	7
3	2	7	5	8	6	9	1	4
6	5	4	1	9	7	2	8	3
9	1	8	3	4	2	6	7	5

AURREKOEN EMATZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulatorioa.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

farmaziak

✓ barixakua 6

EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

✓ zapatua 7

EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)

✓ domeka 8

EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

✓ astelehena 9

EGUNEZ Larramendi (Calbeton, 19)

✓ martitzena 10

EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

✓ eguaztena 11

EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

✓ eguena 12

EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

✓ barixakua 13

EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI

Elorza (J. Gisasola, 18)

1. Etxebizitza**1.1. Salgai**

– Pisua salgai San Vicente de la Sonsierran (Errioxa). 4 logela, egongela, sukaldia, bi komun eta ganbara. Tel. 615-759399.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-192408.
– Familia batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 642-349114.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 697-754174.
– Pisua hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. Hobe altzaririk gabe. Tel. 649-978832.

3. Lokalak**3.1. Salgai**

– Jostun-tailerra traspasatzen da jubilatzaio-gatik. Tresna, bezero eta denda finkoekin. Tel. 645-341395.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai Matsaria inguruan (Azpiri eraikinean). Tel. 696-626593.
– Gazteentzako lokala alokagai Jardinetan kalean. 132 m². Berriztua eta legezztatua. Tel. 656-756485.
– Garaje itxia alokagai Abontzan. Tel. 617-688311.
– Lokala alokagai Ubitxa inguruan, kale mailan (irteera zuzena kalera). Bulego edo biltegi-rako egokia. 70 m². Tel. 617-688311.
– Garaje-marra alokatzen dut Txomoko parking-ean. 90 euro hilean. isabel.berasategui.flegel@gmail.com
– Garaje itxia alokagai San Andres pasealekuan. Tel. 660-316903.
– Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana**4.1. Lan bila**

– Emakumea eskaintzen da sukaldari jarduteko, nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-682398.
– Pedagogoa eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiten laguntzeko. Tel. 677-591982.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko... Tel. 688-820508.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia eta erreferentziak. Tel. 631-409528.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Esperientzia. Tel. 639-423493.
– Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak eta garbiketarako egiteko. Baita pegorak garbitzeko ere. Tel. 653-010861.
– Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-192408.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-882838.
– Emakumea eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Tel. 653-735843.
– Neska arduratsua eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 639-611454.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 633-808931.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 675-243999.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. Tel. 645-248040.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, etabar. Tel. 663-639241.
– Neska euskalduna (Haur Hezkuntzan diplomaturia) eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-715066.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Baita gauze ere. Tel. 688-959575.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 690-134485.
– Neska eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 640-315602.
– Gizona eskaintzen da arratsaldez banaketarako egiteko. Gida-baimenarekin. Tel. 693-232959.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 680-973549.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 606-906729.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 631-832767.

4.2. Langile bila

– Pertsona behar da goizetan umea Sansaburura eramateko. Tel. 943-203205.
– Kamarera/o behar da eguenetik domekara arte Soraluzeko Ufala Irish Pub tabernan lan egiteko. Tel. 615-750942 eta 943-750030.
– Pertsona behar da Ermuan 8 orduko garbiketarako lanak egiteko. Tel. 685-701034.
– Artezte makinetan edo CNC zentroetan esperientzia duten ofizialak behar ditugu. Bidali curriculumak Eibarko 177 posta-kutxatilara.
– Fisioterapeuta eta kiromasajista behar da Eibarko ileapaindegia batean. Lan giro ona. Tel. 678-674250.

5. Irakaskuntza**5.2. Eskaintzak**

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarretako klaseak ematen dira. 1 eta 3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
– Neska eskaintzen da klase partikularrak emateko LH eta DBHko 1. eta 2. mailakoiei. Esperientzia. Tel. 637-020260.
– Unibertsitateko neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Esperientzia ulermen arazoak dituzten umeekin. Banaka. Merke. Tel. 625-019711.
– Matematikak, Fisika, Kimika, Lengoaia, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen ditut. DBH, Batxilergo eta Heziketa zikloak. Tel. 685-739709 eta 943-127365.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarretako klaseak ematen ditut. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik**6.1. Salgai**

– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.
– Trio Jane Carrera Aniversario, urdin ilun koloreko salgai. Oso egoera onean. 0 taldea, kapazoa eta aukia. Zaku eta plastikoa barne. Tel. 686-474208.
– 1'50 metroko ohea salgai. Gereziando-zurez egindakoa eta diseinuzkoa. Ia berria. 500 euro, negoziagarriak. Tel. 635-009554.
– Bi oheko ohe-kabi zuria salgai (0'90x2). Somierrekin, baina koltxoirik gabe. 150 euro, negoziagarriak. Tel. 660-805301.
– 0'90eko sukaldia salgai, gas-bonbonak eramateko eta labearrekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Egoera onean dauden 16 buzoio oparitzen dira. Tel. 617-688311.
– Umeendako aukia salgai. Beltza, McLaren Techno-XT markakoa. Bere neurrirako plastikoa erekin. 180 euro. Tel. 646-892162.
– Ontzi-garbigailua salgai. Balay markakoa. 100 euro. Tel. 636-906921.

6.2. Eman

– Ordenagailurako aukia oparituko nuke. Bizkarralde handia eta gurpilekin. Tel. 636-906921.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Aurreko barixakuan umearen motorra ahaztu nuen T. Etxebarrian. Urdin eta hori kolorekoa, Hugo jartzen du. Tel. 677-309013.

Hyundai Tucson Berria

Aldatzea jarrera bat da.



#changeisgood

Aldaketa gure bizitzan zatia da. Sentsazio berriak aurkitzea eta une hunkigarriak bizitzea ahalbidetzen digu. Irudimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinu eta berrikuntza teknologikoek gidaritzaz gozatzeko zure era guztiz aldatzea ekarriko dute.

Esperimentatu aldaketaren indarra www.hyundai.es helbidean

Tucson Berria **18.900€** tik aurrera



OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZKOARAKO

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17

943 74 14 80



Hyundai Tucson Gama

CO₂ Emisioak (gr/km): 119-175

Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,6-7,5

Tucson 1.6 GDI (131CV) 4x2 BD ESSENCE-rako gomendatutako prezioa, Penintsulan eta Balearretan (18.900€). BEZ, garrailoa, matrikulario-zerge, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza, Hyundai Soluzión Plana eta Gobernuaren PIVE Plana barne (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzak betetzeari lotuta). Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetetan eta 13.000€ko gutxienezko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatuko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziarioa. 2015/11/30era arte balioko du eskaintza honek. Erakutsitako modeloa: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziarioari lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduaren baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo hyundai.es helbidean.

Probatu zure zentzumena

Probatu zure audifono berriak
30 egunetan



Egokitzapen
bermatua



Kontsultatu baldintzak denda honetan.

 **audiocentro**
lgmar

Julian Etxeberría, 2
20600 Eibar
Tel. 943 20 26 99

Audiopotesis goi mailako
teknikaria: Antón Martinena

Entzumen-test integralak

Audifono digitalak

Neurrira egindako tapoiak

Konektibitate-soluzioak

Mantentze-tekniko integrala

Neurrira egindako finantziarioa



KONTZESIONARIO BERRIA NAIA CAR

Apalategi Auzoa, 1 • Tel. 943 707 033 • www.naiacar.com



NAIA CAR-ek 25 sarrera zozketatzen ditu

“RECORDANDO A NINO BRAVO” kontzerturako

Serafin Zubiri eta Eibarko Cielito Musika Bandarekin

Azaroaren 20an 22:00etan Astelena frontoian

Kupoia bete eta entregatu “...eta kitto!”-ko bulegoetan Urkizu, 11n (solairuartera) edo **Portalea tabernan** Azaroaren 11 baino lehen. Zozketa “...eta kitto!”-ko bulegoetan egingo da Azaroaren 12an. Irabazleen izenak Azaroaren 13ko “...eta kitto!” astekarian kaleratuko dira.

Sarrerak Azaroaren 14tik 20ra arte jaso ahal izango dira KIA NAIA CAR kontzesionarioan.

Kontsumoa (l/100km): 4,5-7,2. CO₂ emisioak (g/km): 117-189. *Kia garantia gida-liburua kontsultatu.*



Izen Abizenak

.....

Mugikorra

.....

E-mail-a

.....